

FUNTSEZKO ELKARTEAK



Canvas ereduari jarraituz, hurrengo puntua kideak deiturikoa da. Gurekin lan egingo duten erakundeak dira, gure proiektua aurrera ateratzeko erraztasunak eta laguntza emango eta eskainiko dizkigutenak hain zuzen.

Gure proiektuarekin zerikusia duten erakundeak bilatu behar ditugu gure proiektua aurrera ateratzeko. Gure proiektua osasuna eta elikadurarekin bat datorrenez, laborategi batekin, osakidetzarekin eta jatetxeen erakundeekin lan egitea aproposa izango zela uste dugu.

Horretarako, kontaktuan jarri izan behar dugu, haien baiezkua lortzeko eta horrela aurrera jarraitzen laguntzeko.

Osakidetzarekin kontaktuan jartzea pentsatu dugu, haiek badakitelako zeliakoen arazoak zeintzuk diren eta horri esker gaixotasunaren definizioa eta esplikazioa emanaz jarriko dute haien alea.

Laborategikoekin kontaktuan jartzean berriz, tira erradiaktiboak edota antigorputzak zeintzuk izan beharko ziren esateko edo nola egin beharko genukeen esateko jarriko gara kontaktuan, beraiek badakite eta nola egin behar diren gauza erradiaktiboak.

Jatetxeekin berriz, bien artean laguntzen garelako, batak gure produktua iragartzen du eta gu haiei batzuk uzten dizkiegu jatetxean eduki ditzaten bezeroek behar dutenean hartzeko. Gure kita jatetxeetan egotea komenigarria dela iruditzen zaigu nahiz eta bezeroak berea eduki, seguraski norbait egongo dela aparatua erosi gabe dagoela.

Horregatik, bi asoziazio ezberdin ditugu, osasunarekin lotutakoak, eta elikadurarekin lotutakoak, batzuk guri lagunduko digute erreakzioa egiteko eta besteak guri lagunduko digute, kit-ak banatzen edo propaganda egiten.

Asoziazio hauekin jarri gara kontaktuan gure kit portableak aurrera atera ahal izateko.